KALAPUTXI

Mutrikuko herri-aldizkaria
2002ko urtarrila
201. zenb.



Maria Granados Sanchez

Txalotu nahi dugu Kalaputxitik, gerra zela-eta, Maria eta antzeko egoera sufritu beharra izan zuten beste milaka emakume, izandako adore eta kuraiagatik.

BENJAMIN PEREZ GRANADOS

Oraindik gitarraren sokak dantzarazten



Etxeko argindarra eta gasa
Gatza eta piperra, mutrikuarrez
Santa Ageda gogoan, Santa Eskean koplari
Sasoi bateko posturak
Odol-emaileak herrian

Samiela

Matrikulazio epea zabalik

urtarrilaren 27tik otsailaren 7ra

Saio hauetara etortzeko interesa baduzue, baina ezinezkoa bazaizue jar zaitezte gurekin harremanetan.

www.samiela.eus

zuzendaritza@samiela.eus

943 60 31 95

Ate irekiak

Urtarrilaren 31n, 17:00etan

- *Haur Eskola*
- *Ingelesa 2 urteko gelan*
- *Metodologia berriak*

Telefonoak

Osasuna

Larrialdiak 943 46 11 11
Anbulatorioa 943 60 43 00
DYA zentrala 943 46 46 22
Mendaroko ospitala 943 03 28 00

Botikak

Lasuen-Elezgarai 943 19 50 26
..... 626 61 13 92
Lon Apraiz 943 60 32 50
..... 630 05 50 97
Amaia Zalduegi 669 26 22 01
Hiart Burgoa 667 33 88 90
Etxeberria (Elgoibar) 943 74 01 40
Garitaonaindia (Elgoibar) 943 74 11 77
Yudego (Elgoibar) 943 74 12 93
Barrenetxea-Etxeberria (Elgoibar) .. 943 74 12 77
Ana Mandiola (Eibar) 943 82 05 33

Udala, zerbitzuak...

Udaletxea 943 60 32 44
Udaltzaingoa 943 60 70 48
..... 679 16 25 00
Gizarte Ongizatea 943 19 50 81
Anai Arte 943 60 34 10
Zaharren Egoitza 943 60 38 71
Eguneko Zentroa 943 60 38 71
Turismo Bulegoa 943 60 33 78
Bake epaitegia 943 60 70 49
Kiroldegia 943 60 31 75
Liburutegia 943 60 41 82
Miruaitz pilotalekua 943 60 41 91
Ur Partzuergoa 902 30 22 22
Zakarrak eta traste zaharrak 943 70 07 99
Posta zerbitzua 943 60 30 44

Irakaskuntza

Goizeko Izarra Ikastola 943 60 36 75
San Miguel Ikastetxea 943 60 31 95
Mutrikuko Institutua 943 60 35 45
Udal Euskaltegia 943 60 37 80
Udal Musika Eskola 943 60 37 80
Haurreskola publikoa 943 60 41 19

Garraio zerbitzuak

ANSOLA taxia 638 67 23 83
ANTON taxia 666 22 19 99
XABI taxia 656 28 90 26
Lurraldebus 943 41 52 08
Pesa Autobusak 900 12 14 00
BizkaiBus 902 22 22 65
EuskoTren 902 54 32 10
Loiuko Aireportua 905 50 50 05

Bestelakoak

Parrokia 943 60 39 87
Bikario etxea 943 60 39 88
Santa Catalina eleiza 943 60 32 00

Iritzixa

Garbiñe Garagarza Lekube

A ZE URTEA!

Hamarkada bat itxi du 2019ak, eta ez dakit zuentzat, baina niretzat, ez ahazteko moduko horietakoa izan da, aldaketaz betea eta gogor xamarra. Zuek esan bestela… Frigorifikoa eta labadorarekin hasi ziren aldaketak. Beraienak egin zuela erabaki zuten, eta hara… aldaketa! Kotxeak jarraitu zion… ke beltz artean, joan zen hura ere! Baina tira, ordura arte-koak *trasta* hutsak ziren. Aldatu eta kitto! Gogorragoak izan dira bestelako aldaketak eragin dizkidaten kontuak. Bihotzean zuzenean eragiten dizuten horietakoak: bizitzaren erritmo zoroa tarteko, laguna erdi itota ikustea; bidelagun aukeratu duzuna, patxal, bidea egiteko zailtasun handiekin ikustea; edota gaitzak hartuta, betirako itzali den lagunari agur esatea. Baina hori da bizitza, dirudienez. Eta ez da oraintxe ijito lagun bati entzundakoa bizitzak limoiak ematen dizkizunean, *limoná* egin behar ei dela. Ba zer nahi duzue esatea… pentsatzen hasia naiz ez dela horrela eta norberak erabaki behar duela limoi garratzak jasota, *limoná* egin nahi duen, sorbetea egiteko aprobetxatuko duen edo *gin-tonic* bat prestatzea hobe izango den. Aurtengo limoiek, pertsonalki, zera erakutsi didate: hor egongo dela beti, baina *egin nahi dudana*-ri denbora gehixeago eman beharko niokeela eta bihotzean eragiten didaten horiekin denbora gehixeago pasatu. Horra erronka 2020rako. Hori bai, urte denak ez omen dira berdi-nak… eta hala ari da izaten. 2020a gozo eta goxo hasia dut Arnon. Hasiera bikaina. Eskerrik asko, Burumendiko lagunok. Eta egun berean, hara! Albiste onaren oihartzuna ere heldu zen, irribarre eta poz asko eraginez. Arnotik oihu eginda ez zitzaionez helduko, ea hemendik: Ongietorri Agurtzane! Ikus-ten,?! Hasiera itzela… ea martxa honetan, 2020a gozoagoa, berdintasun gehiago ekarri duena eta, batez ere, askeagoa dela esaterik dudan hurrengoan!



www.lurraldebus.eus

900 300 340

astelehenetik ostiralera

DB03 LEKEITIO-DONOSTIA

Lekeitio	6:15	9:50	12:50	17:50	20:00	
Ondarroa	6:40	10:15	13:15	18:15	20:25	
Mutriku	6:45	10:20	13:20	18:20	20:30	
Donostia	*7:55	11:30	14:30	19:30	---	*Unibertsitatetik

DB03 DONOSTIA-LEKEITIO

Donostia	8:00	11:00	*14:30	18:00	20:30	*Unibertsitatetik
Mutriku	8:50	11:50	15:25	18:50	21:20	
Lekeitio	9:35	12:35	16:10	19:35	22:05	

DB04 ONDARROA-MALLABIA

Mutriku	7:15	orduro	20:15	21:25	22:15	22:45
Mendaro	7:50	orduro	20:50	22:05	22:50	22:55
Eibar	8:15	orduro	21:15	22:30	22:45	23:15
Mallabia	8:30	orduro	21:30	22:45	---	---

DB04 MALLABIA-ONDARROA

						ostr. lanegun
Mallabia	6:00	6:45	orduro	20:45	21:25	22:05
Eibar	6:10	7:05	orduro	21:05	21:45	22:15
Mendaro	6:35	7:35	orduro	21:35	22:10	22:30
Mutriku	6:55	7:55	orduro	21:55	22:30	22:40

DB05 MUTRIKU-ZUMAIA

Mutriku	6:25	9:25	11:25	13:25	16:25	18:25
Deba	6:40	9:40	11:40	13:40	16:40	18:40
Zumaia	7:10	10:10	12:10	14:10	17:10	19:10

DB05 ZUMAIA-MUTRIKU

Zumaia	8:10	10:10	12:10	15:10	17:10	
Deba	8:40	10:40	12:40	15:40	17:40	
Deba	9:15	11:15	13:15	16:15	18:15	
Mutriku	9:25	11:25	13:25	16:25	18:25	

DB06 ONDARROA-SORALUZE

Mutriku	8:45	10:45	12:45	14:45	17:45	19:45	21:45
Mendaro	9:15	11:15	13:15	15:15	18:15	20:15	22:15
Soraluze	9:40	11:40	13:40	15:40	18:40	20:40	22:40

DB06 SORALUZE-ONDARROA

Soraluze	7:40	9:40	11:40	13:40	16:40	18:40	20:40
Elgoibar	7:45	9:45	11:45	13:45	16:45	18:45	20:45
Mendaro	8:00	10:00	12:00	14:00	17:00	19:00	21:00
Mutriku	8:20	10:20	12:20	14:20	17:20	19:20	21:20

larunbat, igande eta jai-egunak

DB03 LEKEITIO-DONOSTIA

Lekeitio	8:00	12:30	17:00	19:00	
Ondarroa	8:25	12:55	17:25	19:25	
Mutriku	8:30	13:00	17:30	19:30	
Donostia	9:40	14:10	18:40	20:40	

DB03 DONOSTIA-LEKEITIO

Donostia	10:30	14:30	17:00	Ig 20:30	Lr 21:00
Mutriku	11:20	15:20	17:50	21:20	21:50
Lekeitio	12:05	16:05	18:35	22:05	22:35

DB04 ONDARROA-MALLABIA

Mutriku	Lr 7:15	Ig 8:15	orduro	20:15	21:25	Lr 22:15
Mendaro	7:45	8:45	orduro	20:45	22:05	22:20
Eibar	8:10	9:10	orduro	21:10	22:30	22:45
Mallabia	8:25	9:25	orduro	21:25	22:45	---

DB04 MALLABIA-ONDARROA

Mallabia	Lr 6:50	Ig 7:45	orduro	Lr 21:45	Ig 19:45
Eibar	7:00	8:00	orduro	22:00	20:00
Mendaro	7:35	8:35	orduro	22:35	20:35
Mutriku	7:55	8:55	orduro	22:55	20:55

DB05 MUTRIKU-ZUMAIA

Mutriku	Lr 8:25	10:25	12:25	14:25	16:25	18:25	20:25
Deba	8:40	10:40	12:40	14:40	16:40	18:40	20:40
Zumaia	9:10	11:10	13:10	15:10	17:10	19:10	21:10

DB05 ZUMAIA-MUTRIKU

Zumaia	Lr 9:10	11:10	13:10	15:10	17:10	19:10	Lr 22:10
Deba	9:40	11:40	13:40	15:40	17:40	19:40	22:40
Deba	10:15	12:15	14:15	16:15	18:15	20:15	23:15
Mutriku	10:25	12:25	14:25	16:25	18:25	20:25	23:25

DB06 ONDARROA-SORALUZE

Mutriku	Lr 9:45	11:45	13:45	17:45	19:45	21:45
Mendaro	10:20	12:20	14:20	18:20	20:20	22:20
Soraluze	10:40	12:40	14:40	18:40	20:40	22:40

DB06 SORALUZE-ONDARROA

Soraluze	Lr 8:40	10:40	12.40	16:40	18:40	20:40
Elgoibar	8:45	10:45	12:45	16:45	18:45	20:45
Mendaro	9:00	12:00	13:00	17:00	19:00	21:00
Mutriku	9:20	12:20	13:20	17:20	19:20	21:20

www.euskotren.eus

Bilbo - DEBA - Donostia

	Lehena A-O	Lehena L-I	Azkena egunero
Bilbo		7:00	20:00
Eibar	6:14	7:14	21:14
Elgoibar	6:24	7:24	21:24
Mendaro	6:33	7:33	21:33
DEBA	**6:44**	**7:44**	**21:44**
Zumaia	7:00	8:00	22:00
Zarautz	7:08	8:08	22:08
Orio	7:15	8:15	22:15
Errekalde	7:29	9:29	22:29
Donostia	7:38	9:38	22:38

Donostia - DEBA - Bilbo

	Lehena A-O	Lehena L-I	Azkena egunero
Donostia	5:50	7:50	20:50
Errekalde	5:59	7:59	20:59
Orio	6:14	8:14	21:14
Zarautz	6:20	8:20	21:20
Zumaia	6:29	8:29	21:29
DEBA	**6:43**	**8:43**	**21.43**
Mendaro	6:52	8:52	21:52
Elgoibar	7:01	9:01	22:01
Eibar	7:11	9:11	22:11
Bilbo	8:20	10:20	23:20

Bizkaibus 902 222 265

ONDARROA - BILBO

astelehenetik ostiralera

	lehena	azkena
A3916 Ermuatik	5:40	19:40
Mutrikutik irten: 6:25, 7:25, 15:25		
A3915 Durangotik	6:10	20:10
Ondarroatik Bilbora **zuzenean**: 6:30; 7:30		

jai egunak

A3916 Ermuatik	6:40	20:40
A3915 Durangotik	7:10	20:10

BILBO - ONDARROA

astelehenetik ostiralera

	lehena	azkena
A3916 Ermuatik	7:10	22:10
Mutrikuraino: 14:10, 18:10, 20:10		
A3915 Durangotik	7:40	21:40

jai egunak

A3916 Ermuatik	8:10	22:10
A3915 Durangotik	8:40	21:40

ordutegi eta geltoki guztiak hemen:

www.kalaputxi.eus/garraioa

EMA, GREBA OROKORRAREKIN BAT

Iazko martxoaren 8an ozen aldarrikatu genituen emakume langileon eskubideak eta zapalkuntzak. Aurten, bat egingo dugu Eskubide Sozialen Kartak urtarrilaren 30erako deitu duten greba orokorrarekin eta EMA (Emakumeak Mutrikun Abixan) taldetik, bertan parte hartzeko deia luzatu nahi dizuegu. Uste dugu gure aldarrikapenek greba orokorrean ere behar besteko ahotsa, lekua eta ikusgarritasuna izatea ezinbestekoa dela. Kapitalaren mesedetan emakume* langile, langabetu, zaintzaile eta jubilatuek bizi ditugun egoera baztertzaile eta prekarioak salatzeko.

Bizitzak erdigunean jarri nahi ditugu, indarkeriari, berdintasun ezari, prekarietateari, sexualitate eredu hegemonikoei, lanen sexuaren araberako banaketari, kontsumo ereduari, familia patriarkalari, jakintzaren hierarkiari, arrazakeriari, edertasun kanonari eta zapalkuntza guztiei aurre egiteko; aldarrikapen hauek guztiak mugimendu feministaren borroken parte izan dira, eta horregatik, greba orokorrera atxikitzea beharrezkoa dela uste dugu.

Protesta egin nahi dugu herriko merkataritza txikia sostengatu, gure zaharrak zaindu, astelehenetoko elkarretaratzeak antolatu, baserriak mantendu eta lan prekariazatuetan lanean diharduten emakume* guztiekin eta guztien alde. Besteak beste, Euskal Autonomia Erkidegoan emakume pentsiodunek gizonezkoek baino %40 gutxiago kobratzen dutelako eta emakume langileek, bataz beste, gizonezkoek baino %24,3 gutxiago irabazten dutelako. Uste dugu emakumeon ahotsak eta aurpegiak kalean eta lehen lerroan egotea beharrezkoa dela.

Horregatik, dei egiten diegu mutrikuarrei bizitza bizigarriagoen alde greba orokorrarekin bat egin eta antolatutako jardueretan parte hartzera. Bizitza prekariorik ez. Gora borroka feminista!

EMA - Emakumeak Mutrikun Abixan

*Kalaputxi*k irakurleen gutunak plazaratzen ditu. Datozen ordenean eta espazioak eskaintzen duen aukeraren barruan, moztu edo hurrengo hilerako laga dezakegu. Gutunak izen abizenekin bidaliko dira:
Kalaputxi, Barrenkalea 12 behea, 20830 Mutriku edo internet bidez, **kalaputxi2001@gmail.com**

Argitaratzailea **Karenka Komunikazio Elkartea**
Barrenkale 12, behea - 20830 Mutriku Tel. 635 748 393
e-posta **kalaputxi2001@gmail.com / aldizkaria@kalaputxi.eus**
Web gunea: **www.kalaputxi.eus** Bloga **www.kalaputxi.blogspot.com**
Laguntzaileak **Mutrikuko Udala** eta **Gipuzkoako Foru Aldundia**
Kolaboratzaileak **Iñigo Andonegi, Josu Larrañaga, Ibon Aginaga**
Tirada **2.200 ale** Lege Gordailua **SS-787/01** ISSN **1579-4792**
Inprimategia **EUSKALINPRI** Banaketa **Kalaputxi**

Kalaputxi Herri-Aldizkarixak
Erakunde hauen diru laguntza jasotzen du:

Mutrikuko Udala
Gipuzkoako Foru Aldundia

ETXEKO ARGINDARRA ETA GASA
kontratu egokiaren bila

Gaur egungo helburuak, energiari dagokionez, antza, argi dugu zeintzuk diren: berotegi-gasen isurketak murriztea, energia-aurrezpeneko kuotak ezartzea eta iturri berriztagarrietatik datorren energiaren kontsumoa sustatzea. Ordea, ba al dakigu kontsumitzen dugun energiaren iturria zein den, zenbat ordaintzen dugun eta zer-nolako kontratuak ditugun? Galdera horiei erantzun eta zalantzak argitzeko Angel Aristondo (1964) aholkulari energetikoari eskatu dizkiogu azalpenak.

Faktura-orriak etxeetara heltzen direnean, gastuaren zenbatekoari begiratzea da ohikoena; bertan ditugun grafika eta letra txikiari erreparatu gabe. Gehienetan, letra txikiak zer dion ez dugu ulertzen. Eta, normalean presaka begiratzen diogu; akaso denbora faltagatik. Gure atentzioa guztira jartzen duen kantitatean zentratzen dugu. Izan ere, guztira jartzen duen horrek ematen digu tripako mina.

Baina, ba al dakigu zer-nolako kontratuak ditugun?

Horretarako goazen faktura-orrietan erreparatzera. Besteak beste, zure elektrizitate-horniduraren ezaugarriak eta datuak ezagutzeko beharrezko informazio guztia agertzen baita bertan, baita ordainketaren datuak ere.



Alegia, etxeko argindarri dagokionean, hau da, 10 kWko potentzia kontratatua edo txikiagoa denean, bi kontratazio-aukera daude:

Alde batetik, merkatu librea daukagu eta bestaldetik, Kontsumitzaile Txikiarentzako Borondatezko Prezioa (KTBP) deritzaiona.

Lehen kontratazio aukera hori, elektrizitate-merkaturatzaile batek eskainitako prezioan kontratatu behar da. Ordea, bezeroarentzat baditu nolabaiteko desabantailak: urteko iraupena, letra txikiko kontratuak, zerbitzu gehigarriak... kasu askotan bezeroak ezagutzen ez dituen puntuak ageri dira. Eta, horrez gain, kWko prezio altuak eskaintzen dira. Beraz, ez da aukerarik gomendagarriena. Bigarren aukeran, berriz, kontratuaren baldintzak araututa eta mugatuta daude.

Baina, zer da KTBPa?

Kontsumitzaile Txikiarentzako Borondatezko Prezioari deritzo. Hain zuzen ere, erreferentziazko merkaturatzaileak (argindar-hornidura enpresak) bezeroari kobratu ahal izango dion gehienezko prezioa da. Bezero horrek, kW bat edo gutxiagoko tentsioko sare bati lotua egon eta 10 kW edo gutxiagoko potentzia kontratatua duten hornidura-puntua izan behar du. Baldintza horiek betetzea beharrezkoa da.

Gaur egun, kontratuaren baldintzak araututa eta mugatuta daude. Ezin da klausula berezirik edo zerbitzu gehigarririk ipini, eta merkatu librearen aldean kW prezio hobea dute. Dena dela, prezioa merkatuaren arabera aldatzen da, ordea, oso gutxitan gainditu dira azken urteotan merkatu libreko prezioak. Alegia, azaroko KTBPa 10 zentimo €/Kw izan da.


Iragan urteetan, merkatuaren gorabeherak aprobetxatuz atez ate ibiltzen ziren ohiko komertzialek kWko prezio finko garestiagoak eskaintzen zituzten. Hain zuzen ere, merkatu elektrikoa liberatu zenetik (2009), araututako merkatutik 9 milioi bezero inguru merkatu librera eramatea lortu zuten; askotan iruzurrezko salmenta-teknikak erabiliz. Azkenean, 2018ko urrian, gobernuak atez ateko salmenta debekatu zuen.

Baina, nola jakin dezakegu KTBP tarifa dugun?

Etxeetara bidaltzen diguten faktura-orrietan, zehazki, "Kontratuaren datuak" atalean, KTBP tarifa edo Tarifa Arautua kontzeptua agertu behar da; bestela, merkatu

ASTIGARRAGA ANAIAK, S.L.U
ERAIKETAK
Tel.: 943 60 40 86 / 667 411 938
e-mail: astigarragamutriku@outlook.es
Txurruka Tteak., 28 behea - 20830 Mutriku (Gipuzkoa)

Uzuri RPS 183/12
ELGOIBAR - DEBA
optika audio
DEBA, Ostolaza 7 - Tel. 943 19 21 92
ELGOIBAR, San Frantzisko 21 - Tel. 943740359


DATOS RELACIONADOS CON SU SUMINISTRO

Nº contador.
Referencia contrato suministro:
Empresa distribuidora: i-DE, Redes Eléctricas Inteligentes, S.A.U.
Número de contrato de acceso:
Identificación punto de suministro (CUPS):
Forma de pago: DOMICILIACION BANCARIA
Entidad: CAJA DE AH. Y PENSIONES DE BARCELONA
IBAN:
BIC: CAIXESBBXXX
Código de mandato:
*** Ocultos para su seguridad

Potencia contratada: 4.6 kW
Peaje de acceso a la red (ATR): 2.0 A
Precios de peajes de acceso: B.O.E. del 27/12/2017
Duración de contrato hasta: 01/12/2019
Dirección fiscal:
Con contador inteligente efectivamente integrado en el sistema de telegestión.
Portal de medidas:
www.iberdroladistribucionelectrica.com/consumidor

librearen hautua egina dugula adierazi nahi du.

KTBP kontratatzeko beharrezkoa da datu hauek ematea: horniduraren titularraren datuak, etxebizitzaren helbidea, CUPS (Horniketa-puntuaren Kode Unibertsala), kontratatutako potentzia eta banku-kontuaren zenbakia.

KTBPa erabili nahi duen kontsumitzaileak erreferentziako edozein merkaturatzaileren bidez kontratatu beharko du hornidura. Merkaturatzaile horiek guztiek, Gobernuak eta CNMCk (Comisión Nacional de los Mercados y la Competencia) tarifaren izapide, prozedura eta prezioei buruz ezartzen den araudia bete behar dute.

Honako hauek ditugu **erreferentziazko merkaturatzaile batzuk**:

- Baser Comercializadora de referencia S.A. (EDP)
- Curenergia comercializador de último recurso. (Iberdrola).
- Energía XXI comercializadora de referencia S.L. (Endesa)
- Comercializadora Regulada Grupo Naturgy. (Gas Fenosa)
- Regsiti Comercializadora Regulada S.L.U. (Repsol-Viesgo)
- CHC Energia, y Energia Ceuta XXI.

Horietako edozein bezerok, telefonoz deitu eta inolako kosturik gabe, tarifa aldatzeko eskaera egin dezake; hori bai, pazientziarekin hartu behar da. Hala eta guztiz, jakin edozein bezeroren eskubidea dela kontratua aldatzeko eskaera egitea, alegia, kosturik gabe eta KTBPn permanentziarik gabe.


Horrez gain, kontuan izan behar dugu kontratua egiterakoan hiru tarifa aukera ditugula:

- Ohiko tarifa sinplea (2.0A).
- Tarifa sinplea, ordu-bereizketako bi aldirekin (2.0DHA) kW, hau da, gaueko orduetarako eta egunekoetarako prezio ezberdinarekin.
- Tarifa sinplea, ordu-bereizketako hiru aldirekin (2.0DHS). Aurrekoaren berdina, baina hirugarren ordu-tarte bat barne, 01:00tik 7:00ra merkeena.

Azkenik, esan behar da araututako tarifa baten (KTBP) titular izatea ezinbestekoa dela, Bonu Soziala eskatzeko. Hemen ere, hiru aukera ditugu:

- Bezero kaltebera edo ahulak (fakturan %25eko deskontua).
- Bezero kaltebera larria (%40ko deskontua fakturan).
- Baztertzeko arriskuan dagoen bezero kaltebera larria (%50eko deskontua).

Bukatzeko, Gasaren kontratazioari dagokionez, egoera antzerakoa da: alde batetik, merkatu librea daukagu, eta bestaldetik, Araututako Tarifak (TUR). Azaroko Araututako gasaren prezioa 0,045 kW izan da. Araututako tarifara aldatzeko eskatzeko eskubidea ere hor daukagu.


KONTRATUAREN DATUAK / DATOS DEL CONTRATO

Titularra / Titular:
IFK - IFZ / NIF - CIF:
Horniduraren helbidea:
Dirección de suministro:
KONTRATU MOTA: KTBS. / PVPC.
TIPO DE CONTRATO:
KONTAGAILU MOTA: Telekudeaketa sisteman eraginkor integratutako Kontagailu inteligenterik gabe. / Sin contador inteligente efectivamente integrado en el sistema de telegestión.
TIPO DE CONTADOR: Fakturazio epeko bataz besteko profildun fakturazioa. / Facturación con perfil promedio del periodo de facturación.
Sarbide saria / Peaje de acceso: 2.0A
Kontratatutako potentzia: 4,60 kW
Potencia contratada:
Hornidura kontratuaren erreferentzia / Referencia del contrato de suministro (BASER COR): 700004965097
Sarbide kontratuaren erreferentzia / Referencia del contrato de acceso (IBERDROLA DISTRIBUCION ELECTRICA, S.A.): 435915289
Kontratuaren amaiera data: 2020(e)ko maiatzaren 27(e)an (urteroko berritze automatikoa)
Fecha final contrato: 27 de Mayo de 2020 (renovación anual automática)
Fakturaren igorpen data 2019(e)ko abenduaren 22(e)an
Fecha emisión factura: 22 de Diciembre de 2019
Hornidura puntuaren kode bateratua CUPS
Código unificado de punto de suministro CUPS: ES0021000003295215MW
Bezeroarenganako arreta / Atención al cliente (BASER COR): 900 902 947 (doako /gratuito)
Erreklamazioak (BASER COR):
Reclamaciones (BASER COR): 900 902 941 atcliente@basercor.es
Matxurak eta larrialdiak / Averías y Urgencias (IBERDROLA DISTRIBUCION ELECTRICA, S.A.): 900 171 171 (doako /gratuito)
Erreklamazioetarako posta helbidea (BASER COR):
Dirección postal reclamaciones (BASER COR): Plaza del Fresno, 2 Bajo, 33007 Oviedo
Hornidura-kontratuaren edo fakturazioaren gaineko erreklamazioak aurkezteko, Euskal Autonomia Erkidegoko Industria eta Energia Sailburuordetzara jo ahalko duzu 943 022 500/945 018 209 telefonora deituz edo www.euskadi.eus web orriaren bitartez. / Para reclamaciones sobre el contrato de suministro o facturaciones podrá dirigirse a la Viceconsejería de Industria y Energía de la Comunidad Autónoma del País Vasco en el teléfono 943 022 500/945 018 209 o a través de su página web www.euskadi.eus
Gainera, pertsona fisikoa izanez gero, Euskal Autonomia Erkidegoko Kontsumobidera (Kontsumoaren Euskal Institutua) jo ahalko duzu 943 022 500/945 062 140 telefonora deituz edo www.kontsumobide.eus web orriaren bitartez. / Adicionalmente, en el caso de tratarse de una persona física, podrá dirigirse al Kontsumobide (Instituto Vasco de Consumo) de la Comunidad Autónoma del País Vasco en el teléfono 943 022 500/945 062 140 o a través de su página web www.kontsumobide.eus
Halaber, auziak konpontzeko Euskal Herriko Kontsumo A.B. entitate alternatibora jo dezakezu 945 062 140 telefonora deituz. BASER COMERCIALIZADORA DE REFERENCIA beren bezeroei edozein desadostasun modu adiskidetsu eta independentean ebazteko aukera emateko aplikatzen duten sistema. Informazio gehiago nahi baduzu, kontsultatu: www.basercor.es / Asimismo, podrá acudir a la entidad de resolución alternativa de litigios J.A. de Consumo del País Vasco en el teléfono 945 062 140, sistema al que está acogida BASER COMERCIALIZADORA DE REFERENCIA para ofrecer a sus clientes la posibilidad de resolver gratuitamente cualquier discrepancia de forma amistosa e independiente. Para más información consulte en: www.basercor.es
Mandatu zk. / Nº Mandato: EDRSIG12405201600000000000000974355
Ordainketa ag. zkia. / Nº Doc. Pago: 89255940193
Ordaintzeko modua:
Forma de pago:
Idatzizko edozein jakinarazpen helarazteko, bezeroek bi helbide hauetako batera jo dezakete: BASER COR, Plaza del Fresno, 2. 33007 Oviedo, edo atcliente@basercor.es / Para cualquier comunicación escrita el cliente puede dirigirse a alguna de las dos direcciones siguientes: BASER COR, Plaza del Fresno, 2. 33007 Oviedo, o atcliente@basercor.es
Faktura honek ez du berez egiaztatzen ordainketa egina dagoenik / Esta factura no acredita por sí sola que el pago se haya satisfecho







URTATS ARNO GAILURREAN

Pertsona askok dute ohitura Urte Berriari mendi gailur baten hasiera emateko. Urtetan asko egin beharko genuke atzera Burumendi Mendi Taldeak Urte berria Arno gailurrean ospatzera dei egin zuenetik. Gorabehera batzuk izan arren, azken urte mordotan jende ugari iristen da gurutzeraino, ondoren, edo, batzuk aurrez, aterpean txorizo otarteko bat janez indarrak berritzeko, salda beroa edo ardoarekin.

Eguzkiaren epeltasunak eta bide lehorrak, asko lagundu zuen igoera ona egiteko mendi malkartsu eta harritsuan, eta eguraldi ezin hobearekin gozatzeko. Urte Berri zoriontsua opatzea zen bata besteari bidean gurutzatzean.

Ezin aipatu gabe utzi, urtero-urtero, Burumendiko partaideen ahalegina. Ez baita txakurren putza, hainbeste jenderentzat behar den janari eta edari guztia hara goraino eramatea, eta... prestatzea.

Eskerrik asko!!!



ARALAR MUNDUA LEKU DEN LURRA

Abenduaren 18an proiektatu zuten Zabiel jauregian Aralar mendilerroari buruzko filma. Garazi Auzmendi, Iban Toledo, Ion Fontela eta Aloña Jauregik txukuntasun eta maitasun guztiarekin eginiko lana, Idurre Eskisabelek eta Lorea Agirrek prestatutako gidoi poetikoan.

Filmean oso ondo azaltzen da mendialde horren lekukotasuna, jendea jende egin dela Aralarren. Aurkezpeneko hitzetan esaten da: "*Lekuak egiten gaitu. Eta lekua egiten dugu naturan, babes hartzean. Elkargune bat mendez mende. Jendea gurutzatzen den lekua. Jendea jende egin den gaindegia*".

Mendiaren erraietatik hasiz, azaleratzen doa bizitza: ura, landaredia, animaliak, gizakia, eta arriskuak. Merezi duen lana.

SAN TOMAS FERIA

Mugimendu handia izan zen herrian San Tomas egunean. Goiko plazan feria eta Beheko plazan herri-kirol dema aizkoran eta harri-jasotzen, eguraldi onaren laguntzarekin, horra, giro polita sortzeko oinarria.

Ohiturari jarraituz, txistorra ogi edo talo artean, basoerdi ardoz lagunduta, horra lagun-giroan solasean jarduteko une egokia, eta errebindikazioak tarteko, hala izan zen. Tartean, postu ugarietatik itzuli bat egin, sagar, intxaur eta erroskila batzuk erosi eta etxera, bazkaltzeko gogo handirik gabe. Aurtengoan, baina, libururik ezin izan genuen erosi, hainbat urtetan izandako postuan.



APALLU
ITURGINTZA
Telf.: 600 316 381 - 943 02 98 61
San Agustin,3 - Mutriku
apallu@apallu.es www.apallu.es

Gorritxu autoak
Pol. ANTZOMENDI · Galdona bidea
MUTRIKU 943 60 31 86
gorritxuautoak@hotmail.com



MELTXOR, GASPAR ETA BALTASAR

Urtero bezala iritsi ziren Mutrikura hiru errege magoak euren opariak herriko umeei ekartzera. Baina, zer egin zezaketen, adinez gora ibili behar duten erregeek, pajeen laguntza izango ez balute?, edo Bandaren, soinujoleen eta txistularien soinurik ez balego? Ez zen ikusi zeruan izar berezirik, eta, ziur, bidean galduko zirela.

Horregatik, zoriondu behar ditugu pajeak, zaldi zaindariak, musikariak, eta hainbat eta hainbat herritar antolakuntzan aritu zirenak, bestela, nork sikatu haurren aurpegiko negar malkoak?

Dena den zortea dugu errege hauek berdinak direla mendeetan, ez dute oinordekorik izendatu, oraingoz behintzat. Okerragoa da beste errege batzuen kontua, non Jainkoaren graziaz izendatuak gelditzen diren odol urdineko semeen semeak. Eta, jakina, hauek besteentzat zorionak zabalduko duten pajeen ordez, mendekoak behar euren onurarako lan egin dezaten. Eta gu gara horiek.



IRIAGIRREKO HORMA EGONKORTZEN

Duela ia berrogeita hamar urte Iriagirre auzoko etxe grisak eraiki zirenean errepidearen ondoan altxatu zen eustorman arrakalak agertu ziren uda aurretik. Auzotarrek udalari horren berri jakinarazi eta beren kezka agertu ondoren, lehen azterlanek erakutsi zuten etxebizitzen eraikinak haitzaren gainean sendo ezarrita daudela eta ez zeudela arriskuan. Hala ere, betelanak egindako presioak eraginda horman arrakalak sortu ziren eta interbentzioa egin beharra zegoela erabaki zen.
Obra egiteko proiektua Ikerlur geoteknia enpresak egin zuen eta, *Azogue Injenieria* enpresari esleitu zitzaion obra. Horma egonkortzeko lanek 80.000 euro aurrekontua izango dute eta bi hilabetez luzatuko dira. Tokiaren ezaugarriak direla eta, errepidearen errei bat moztu egin beharko da eta trafikoa semaforo bidez erregulatu.
Horma egonkortu ondoren, hormaren gainaldeko aparkalekuaren ondoko plazatxoan ere obra egingo da han ere arrakalak agertu zirelako, hormakoekin batera. Bide batez, aparkalekuaren eta plazatxoaren arteko bederatzi eskailerak kendu eta arranpa egingo da irisgarritasuna hobetzearren.



GABON BEZPERA

Oraindik Gabon bezperako eskearen ohiturak jarraitzen du herrian. Eguerdi bueltan haur eta gazte ugari atera ziren, gehienak musika instrumentuez lagunduta Gabon-kantak abesten. Arratsalde-iluntzean nagusiak helburu berdinekin. Olentzerok ere egin zuen bere ostera haur eta gurasoen ilusioak betetzen. Jesusen jaiotza, Jainkoaren jaiotza zen ospatzen genuena egun berezi horretan. Baina, lehenagoko Jainkoaren modukoa ez al dugu bihurtu, gaur egun, izaera fede unibertsalari zor dion Diru Handi Supremoa? Ez al da bereizten halako zerbait ohitura horiek mantentze horretan?

ARRIETA
AUTOZERBITZUA
Aliprox
J.M. Altzibar etorbidea · 943 60 31 01

Ristorante AzkenEtxe
egurrezko labean egindako pizzak
italiar sukaldeko zapore guztiak
parrilladak · ospakizunak
(ezkontzak, familia-bazkariak, taldeentzako menu bereziak...)
asteazken iluntzetik igande gauera arte
943 60 34 39 · 636 386 016 · ristorante.azkenetxe@gmail.com · Kalbario gaina, Mutriku



PENTSIO DUINEN ALDE

Mutrikuko pentsiodunek eta jubilatuek, Euskal Herriko beste hainbat herritan bezala, eleizako eskaileretan elkartzen jarraitzen dute dagoeneko bi urtetan egiten diharduten aldarrikapenean.

Urtarrilean, ohizko aldarrikapenekin batera, urtarrilaren 30ean deituta dagoen greba orokorrerako deiarekin ere bat egin dute.

Guztia, beren pentsiodun- eta jubilatu-egoera hobetzeko, bai, baina batez ere gaurko langileek bihar pentsio duinak izan ditzaten.



MUTRIKUN EROSI ETA ON EGIN!

Mutrikuko Udaleko garapen sailak herriko merkataritza txikia sustatu eta bultzatzeko antolatutako “Mutrikun Erosi eta On Egin!” ekimenaren baitan bi bizikleta elektrikoren zozketa egin zen urte bukaeran eta Gabonetako bueltan 10 eurotik gorako erosketak egiteagatik banatutako txartelen artean.

Ekimenak bi hilabete iraun du, azaroaren 9tik urtarrilaren 6ra arte. Epe horren barruan, kanpainara atxikitako saltokietan gutxienez 10 euroko erosketa egitean, merkatariek boleto batzuk banatu dituzte bizikleta elektrikoen zozketan parte hartzeko.

Oraindik goiz da balorazio sakon bat egiteko, izan ere, Mutrikuko Udalak parte hartu duten establezimenduekin bildu nahi baitu, beren iritzi eta ekarpenak jaso ahal izateko. Hala ere, lehen datuak eskuetan izanik, baikortasunez ikusten da aurtengo kanpainak izan duen ibilbidea. Ondorengoak azpimarratu behar: 52 establezimenduk parte hartu dute, inprimatu ziren boletoen ia %80 banatu da, kanpainak herritarrengan izandako oihartzuna handia izan da eta antolaketarako Udala eta establezimenduen arteko elkarlana eta koordinaketa ona izan da.

Aurtengoan sarien balioa txikiagoa izan arren, sari handietan joan denez, jendearentzako erakargarriagoa izan dela uste da. Aurtengo sariak, Orbea markako bi bizikleta elektriko izan dira, Bosch markako motore elektrikoarekin: “Orbea Keram” eta “Orbea Katu” bizikletak.

Egindako zozketan hauexek izan ziren zenbaki sarituak, eta beren ordezkoak:

- Orbea Keram: 42.063 (ordezkoa: 66.197)
- Orbea Katu: 21.205 (ordezkoa: 52.576)

Sariak jasotzeko epea 15 egunekoa izango da (urtarrilaren 10etik), eta beste 15ekoa ordezkoak badira.

Gizonezkoen ileapaindegia
IMOTZ
Erdikokale, 34 - behea MUTRIKU Tel.: 943 60 41 62

ERAIKUNTZAK
OLATZ S.L.
Igeltseritza orokorrean, Txalet, Erreforma...
Tel. 943 60 44 10 / 670 41 42 23 - 24
Olatz Auzoa, Urrestieta Baserria - 20830 Mutriku (Gipuzkoa)


GATZA eta PIPERRA

ALKARREKIN EUSKERAZ? BAI TXO!

Hona hemen beste atal berri bat. Zuen parte hartzea bultzatzeko asmotan, atal honetan hilero denbora-pasak izango dituzue. Gainera, ez dira nolanahiko denbora-pasak izango; hain zuzen ere, herriko hitzak eta esamoldeak asmatu edota bilatu beharko dituzue hemen, besteak beste. **Bai txo! euskara elkartia**k orain dela urte batzuk herriko hitzak eta esamoldeak jaso, mantendu, eta berreskuratzeko edota zabaltzeko helburuarekin egindako **Gatza eta Piperra** lehiaketan jasotako hitzak dira hemen agertuko direnak. Ordenagailuko fitxategi batean edo apalategi batean hautsa hartzen egon beharrean, herrira zabaltzeko modu polita izan daitekeela uste dugu. Hemen azalduko diren hitz guztiak asmatuko dituenik, ba ote? Ea mutrikuar senak zer diotsuen. Animo!

GURUTZEGRAMA

1. TXIMELETA
2. SUDURRA
3. OINETAKOEN LOKARRIA
4. ZINBURUA / ZIBURUA / ZABUA
5. BARRASKILOA





T	A	R	E	F	U	L	O
S	I	K	A	E	J	K	A
I	M	O	R	Z	O	U	I
R	E	B	L	A	S	T	X
R	X	A	E	T	U	S	A
I	T	Z	E	Z	A	S	U
X	I	N	S	E	Z	I	K
T	R	A	P	N	L	A	E

LETRA-ZOPA

1. AMILDU, ERORI, ... EGIN
2. LABAINDU, ... EGIN
3. ITZALI, AMATATU
4. APURTU, ... EGIN
5. HAGINKA EGIN, ... EGIN

soluzioak:

Gurutzegrama: 1. Kalaputxixa 2. Musua 3. Txistana 4. Dindandua 5. Mamakula **Letra-zopa**: 1. Blast 2. Txirrist 3. Atzen 4. Part 5. Krausk






BENJAMIN PEREZ GRANADOS

Oraindik gitarraren sokak dantzarazten

Badajozen sortua bada ere, mutrikuar peto-petoa dugu Benjamin. Gerrak eragindako sufrimenduak barnean ditu, baina gorrotorik gabe bizitzen erakutsi zioten, eta laurogeita sei urterekin ospakizunen bat baldin bada, hantxe dago Benjamin, beti alai, bera baino hogei urte gazteagoekin gitarra astindu eta kantuan, orduetako errepertorioa eta eztarri aparta erakutsiz.

Lana eta musika zaletasuna izan dira bere bizitzaren ardatz. Elektrizitate eta elektronika ikasketak egin, eta, moldez, atera du bizitza. Berrogeita hamar urtetik gora egin zituen herriko bandan tronpetajole, eta hamabost urterekin heldu zion oraindik utzi ez duen gitarrari.



Nola bizi izan zenuen haurtzaroa?

1933ko irailaren 22an jaio nintzen sei anai-arreba arteko familia arrunt batean Badajozeko Zalamea de la Serena herrian. Sei urte gehiago zituzten Pedro eta Francisco anai biki zaharrenek, Josefinak lau urte eramaten zizkidan, Felisak bi, eta nire ondoren, urte batera etorri zen Anjel gazteena.

Nola bizi nintzen diozue, baina ez dut batere gogoko haurtzaro hartaz hitzegitea. Oraindik ere, mina senti-tzen dut erraietan, eta bihotz taupadak azkartzen zaizkit orduko imajinak burura ekartzean. Horregatik, barkatuko didazue, baina zuek imajinatu egoera. 1936ko gerra. Gobernuaren aurka altxatutako tropak berehala sartu ziren herrian, eta gaueko hamarretan atera zituzten etxetik aita eta ama. Bekatu larria beharko zuen izan, derrigorrez, errepublikazale izatea, zeren erbesteratuak izan ziren, aita Lukas Santoñako espetxera eta ama Maria Durangokora. Ez dakit noiz, baina, leku falta tarteko, Saturrarango emakumeen kartzelara ekarri zuten ama hura ireki zutenean. Gu, bitartean, amaren ahizpa baten babesak bildu gintuen.

Hala ere, okerrago izaterik bazegoen, eta gertatu ere, hala gertatu zitzaigun. Tamalez, aitak espetxean aurkitu zuen heriotza, eta Francisco eta Anjel ere mundu honetatik joan zitzaizkigun. Zaila da ulertzea gauden egoeratik begiratuta, baina orduko bizitza hura pairatu izan behar genuenoi ez zaigu batere harrigarria egiten. Asko ziren gure egoera berdintsua bizi izan zutenak.

Noiz iritsi zinen Mutrikura?

Ama Durangoko kartzela zerrendakoa zen, eta, agian, maila ezberdinean kalifikatua. Kontua da, behintzat, laster aldatu zutela graduz, eta horrek eman zion aukera egunez kartzelatik kanpo lana egitera irteteko, nahiz eta lotara bertara itzuli, eta igande osoa Saturraranen igaro behar izan. Laskibartarrek eman zioten lana haurdunaldian zegoen Nievesi lagundu ziezaion hasieran. 1939an aske utzi zutenean, batean eta bestean lanean jardunez, gero gu urtetan bizi izan ginen Atxitxin jaitsierako etxea hartu zuen alokairuan, eta, ekonomiak ahalbideratu bezala, banan-banan etorri ginen anai-arrebok Mutrikura, familiako edo hurbileko nagusiren baten Euskal Herrirako bidaiaren bat aprobetxatuz. Familia elkarrekin ikusita, lasaitu zen gure ama, eta zituen aukera guztiak aprobetxatu zituen denok aurrera ateratzeko, bereziki jostun lanetan aritu bazen ere.

Ni sei urterekin iritsi nintzen herrira, eta hizkuntzak baldintzatu zidan hasieran lagun arteko harremanetan, baina laster gainditu nuen egoera mutrikuarrez zirri-zarra hitz eginez. Eskolan, ostera, abantaila zen gaztelania menperatzea, ez baitzegoen beste hizkuntzarik baimenduta han.

Zein eskolatara joaten zinen, eta ba al duzu kontatzeko moduko pasadizorik?

Lehenengo Beheko Plazako eskolan ibili nintzen denbora labur batez; ondoren, beste denboratxo bat Goiko Plazakoan, eta, azkenik, Marista Anaidiak ardura zuen eskolan, Zabiel jauregian.

Ez naiz gogoratzen anekdota berezi-ren batekin. Ikastea gustatzen zitzaidan, eta gustura joaten nintzen bertara. Gaur bitxikeria izango litzatekeena, baina orduan erabat arrunta, udaberrian

aparra
www.aparramoda.com
www.aparramoda.com
Erdiko Kale 29 20830 Mutriku Tlf. 943 604 594 645 033 561

txirritxa .com
SAR ZAITEZ GURE WEB ORRIAN ETA AURKI EZAZU PROMOZIO BEREZIAK!
Tel. 946 832 600
Gardotza Industrialdea, 3 > 48710 Berriatua > Bizkaia

eskolak erdi hutsik gelditzen zirela goizez eta irakasleak bakarrik arratsaldez, antxoa portura sartzen zen bakoitzean. Eskabetxetara joaten ginen ume guztiak antxoari burua kentzera. Lana baino dibertsio bilakatzen zen, eta gainera txori handi batzuk eramaten genituen etxera.

Adin horretan, gero nire bizitzaren ardatzetako bat izan den musika ikasketa izan zen. Pako Arrietarekin hasi nintzen Sabanika kaleko lokalean musika eta tronpeta ikasten. Berrogeita hamar urtetik gora egin ditut tronpeta-jole Mutrikuko bandan, noizbehinka fiskornoari ere putza eginez.

Eskola utzi eta lan mundura...

Hamalau urterekin eskola utzi, eta lehenengo lana eleiza atzean zegoen guraize fabrikara. Pare bat urte egin nituen bertan, eta Eibarrera egin nuen hurrengo saltoa "Ugartetxea" eskopeta fabrikara. Bi urtetara bueltatu nintzen Mutrikura; orduan *Txirloia*k hotel-haundiren behean zuen fabrikara. Han aritu nintzen lanean soldaduskara deitu zidaten arte. Hura bukatzean, berriro itzuli nintzen *Txirloia*-renera, gure tailerrean sortutako suteak etxe guztia goitik behera eta albokoak kixkali zituen arte. Urrats batzuk emanak nituen ordurako elektrizitatearen munduan, eta nire kontura hasi nintzen lanean.

Zure kontura hasteko zeintzuk pausu zenituen emanak?

Ikastea beti gustatu izan zait, eta sasoi hartan ez genituen gaur dauden aukerak ikasteko. Baina baziren "*cursos por correspondencia*" deitzen ziren batzuk, non aukera ematen zuten etxean teoria zein praktika apur bat lantzeko, eta hala, Elektrizitate eta Elektronika (irrati aparatuak barne) ikasketak egiten hasi nintzen soldaduzkara joan aurretik, lana utzi gabe, jakina.

Soldaduska Madrilen egitea tokatu zitzaidan aireko armadan, transmisiotako destinoan. Aukera izan nuen ikasten jarraitzeko ematen zuten klaseetan, eta bestetik, zorte galanta amerikarrek base bat montatzen ari zirelako, eta bertan parte hartzeko aukera izatean.

Hotela erre baino hilabete lehenago hasi nintzen lan orduetatik kanpo nire kontura elektrizitate eta elektronika lanak egiten, gaur denda dudan leku berean, Petra *Peligrosa*k taberna izan zuen lekuan. Lan gabe gelditzean, horretan jarraitu nuen egun guztian, eta denda ipini, kale berean, *Kale*neko taberna zen tokian. Telebistaren hasiera izan zen une hartan, eta ondo joan zitzaizkidan gauzak. Etxe berriak eraikitzen hasi zirenean, langileak hartu behar izan nituen hartzen nituen lanei erantzuteko.

Eta musika zaletasuna?

Herriko bandako partaide nintzen tronpeta menderatzen nuen geroztik, eta lanean hasi eta lasterrera, hamabost urterekin, heldu nion gitarrari lehenengo aldiz, Zezilio Pagoagaren aginduetara.

Beranduago, "Beti Alai" taldea sortu genuen, eta hor ibili ginen batera eta bestera, afizioari jarraituz, alaitasuna sortzen. Taldea desegitean, Joseba *Loretxu*, beste musika-zale amorratua, izan nuen gitarra ikasle bezala, eta makina bat lagun arte alaitu genituen beste batzuekin batera. Inoiz parte hartu izan nuen ezkontza ospakizunen baten, baina ez nintzen horretan saiatu. Kideek talde berria sortu zutenean ere, ez nintzen partaide izan. Berrogeita hamar urte baino gehiago egin nituen Bandan, eta hura uztean, musikarako grina hor barnean izanik, hor jarraitzen dut, gustu handiz, ohar bat zuzentzea nahikoa izanda, edozein lekutara kantatzera joateko prest gitarrak lagunduta. Hogei urte gazteagoko lagunak ditut orain inguruan, eta gaztetako gogo berdinarekin jokatzen dut inguruak alaitzen handitzen doan gure errepertorioarekin, aukera ematen diguten guztietan. (Elkarrizketa hau egitean Samielara zihoan "zaharrak" alaitzera).



Maria Granados Sanchez

Kalaputxitik txalotu nahi ditugu, gerra zela-eta, Maria eta berak jasandakoen antzeko egoerak sufritu beharra izan zituzten beste milaka emakume, bizitzari aurre egiteko izandako adore eta kuraiagatik.





BERISTAIN
DENDA LURRINDEGIA ESTANKOA
Barrenkale, z/g
943 60 35 44

SASOI BATEKO APOSTUAK

baietz nik irabazi, ez ba!

Posturak, apustuak, erronkak, desapixuak... Sasoi baten apustuak egitxeko ohitxura haundixa zauan Euskal Herrixan. "Posturia egingo al degu?" Hola hasten ziran lehengo mutrikuarrak alkar zirikatzen. Askotan, lagun arteko kontua izaten zan, baiña, tarteka, ondo araututako desapixuak ere antolatzen ziran...

Aspaldiko desapixo batzuk ekarri ditxugu hona, batzuk hango eta hemengo hemeroteketan gordetzen dira, beste batzuk, berriz, mutrikuarren akorduan.

1889ko abuztuaren amaieran Bergaran bizi zen abade batek erronkia bota zoan: baietz egin igarixan Debako zubitxik Mutrikuko moillaraiñoko tartia. Legua bat inguru (5,5 km), orduko prentsaren esanetan. Milla pezetako posturia egin zoan. Tratua eginda, uretara zanga egitxeko zauala, artzapezordiaren –vicearcipreste– agindua jaso zoan, igarialdixa bertan behera lagatzeko esanez... Agindu harekin konformatu ez eta gorago jo zoan, eta prelatuari eskatu zion baimena, baiña harek ere ukatu egin zion. Madrilgo "El Motin" astekari satirikuak hola amaitxu zoan albistia: "*Quien debe alegrarse de este contratiempo del «curanfibio» es el que le apostaba en contra, pues hubiese perdido miserablemente.*" Izan ere, orduko milla pezeta diru asko zan!! Dirutza haren trukian, baten batek Atlantikua ere gurutzatuko zoan...

1891ko maiatzaren 24an postura xelebria egin zeuen Mutrikuko alkatiak eta herriko botikarixo batek: azken horrek esaten zoan handik urtebetera ez zala egongo aginduan Antonio Cánovas del Castillo (1828-1897), alkatia, berriz, baiezkuan zauan. Diru asko jokatu ei zeuen. Urtia pasatu bitxartian herriko maisuak gorde zoan dirua.
Alkatiak irabazi zoan posturia, izan ere handik urtebetera Espaiñiako Ministruen Kontseilluko presidente lanetan segitzen zoan. 1892ko abenduan Práxedes Mateo Sagasta liberala aillegatu zan boterera.

Lanetik sortutako desapixuak ere bazozen. Azken baten, herri-kirolak bezela, eguneroko lanetik jaixotakuak izaten ziran asko: harri-altzatzia, harri-zulatzia, amuak egitxia, estropadak...

Bilbora ezkondutako Bernardino Mugertza elgoibatarrak (38 urte) eta Agustin Amutxastegi mutrikuarrak (36 urte) desapixo baterako obligaziua siñatu zeuen Durangon 1897ko apirillaren hasieran. Arauak: ia zeiñek altzatu pixu gehixen, "*la apuesta de 1.000 pesetas a quien levanta más peso desde el suelo al hombro*". Apirillaren 18xan (domekia) jokatuko zan Durangon eta karehaitza edo harri latza erabilliko zan, 26 ontzako altuerakua. Gero, peruna edo beste metalen bat gehitxu ahal izango zixuen. 250 pezetako depositxua jarri zeuen, eta baten bat desapixora agertu ezian galdu egingo zoan diru haura.

Aillegatu zan zorioneko eguna eta mutrikuarrak 209 kilo altzau zitxuan, elgoibartarrak, berriz, 207 kilo. Amutxastegik irabazi zitxuan, beraz, 1.000 pezeta harek.

Biharbada hau izango da gaur egun mutrikuarrek onduen ezagutzen deuen desapixua. 1925eko martixaren 15xan Itziarko Victor Zabala "Arteondo" eta Mutrikuko Pedro Mari Txurruka "Aritza" Eibarko zezen-plazan alkartu ziran. 3.000 ikusle inguruen aurrian eta 5.000 pezeta jokuan zozela ekin zitxuen adostutako probiari. Lehelengo ordu erdixan mutrikuarrak 12 aldiz altzatu zoan 15 arruako (187,5 kilo) harrixa. Arteondok 9 aldiz baiño ez. Bigarren ordu erdixan Aritzak 9 aldiz bizkarreratu zoan harrixa, eta Itziarkuak lau altzaldi egin eta erretiratu egin zan. Ikusle askok dirutxua jokatu zeuen, "*entre el público se cruzaron apuestas por valor de muchos miles de duros*".

Errebantxia hurrengo urtian etorri zan, 1926ko otsaillaren 7xan. Orduan ere Eibarko zezen-plazan jokatu zeuen, baiña, 10 arruako (125 kilo) harri zilindrikua altzatu bihar izan zeuen 10 miñutuko bi txandatan. Arteondok irabazi zoan 78 altzaldi eginda, Aritza baserriko Pedro Marik, berriz, 71 aldiz altzatu zoan harrixa.

Amu-egintzaille asko zan Mutrikun sasoi baten, eta, jakiña, lana ere aitzakixa ona zan posturak egitxeko. 1923. urte inguruan Mutrikuko hiru amu-egintzaillek posturia egin zeuen ia zeiñek amaitxu lehelen tretza kopuru jakin bat. Honek izan ziran parte-hartzailliak: Pedro Arrizabalaga "Kaballo", Juan Burgaña "Apallu" eta Eugenio Andonegi "Kojua". Pedrok irabazi zoan, 13 ordu eta erdi bihar izan zitxuan; bigarren Apallu geratu zan, 16 ordu eginda; eta hirugarren Eugenio "Kojua".

Bolo-jokuan ere, tarteka, desapixuan ibiltzen ziran. 1883ko abuztuan bolo-jokuaren zerbitzuaren errematia egin zan, eta Fermin Galarragak eskuratu zoan 220 errialen trukian. Arau jakin batzuk jarri zitxuan udalak; hauxe bat: desapixua egin ahal izateko alkatiaren baimena bihar zan, "*con respecto a juego de desafío deberá contar con la venia y permiso del Sr Alcalde si han de jugar*". Itxura danez, desapixuak ezin zeikezen edozela antolatu...

Postura asko, esan bezela, lagun artekuak ziran. Konparaziotarako, Galbaixuetan, potiñekin maiñel zaharrek gaztiei erronka jotzen zixuen, zaharrak irabazi baietz. Dirurik ez jokuan, bi botilla ardau...

Edozerekin egin zeiken posturia. Esaterako, 1947.urte inguruan bi lagunek posturia egin zeuen. Batek Gran Nazareno barkuaren lonjatik (Gaur egun bertan Bar Puerto tabernia) saltaka erten bihar zoan, Kofraixarako paretia ikutu eta berriz ere ertendako lekura aillegatu. Bitxartian bigarren jokalarixak bost gailleta (Maria markakuak) jan bihar zitxuan bere aurkarixak jun-etorrixa amaitxu aurretik. Saltakarixak irabazi zoan, eta bestia han geratu zan, aho bete hortz? Ez ba, aho bete gailleta.

LASTERKETA APUSTUA

Datorren igandean emengo zezen-enparantzan lasterketa apurtu bat jokatuko dute Egaña'tar Klaudio "Aizarna'ko Txikia'k ta Motriku'ko Txurruka'tar Benito'k geyago ezagutua "Betetxe" izengoitiagatik.

Egaña'k enparantzari 110 biraldi eman bearko dizkio ta Betetxe'k 107. Joko au ikusteko gogo bizia dago.



Ohitxueria zan bezala 1933ko San Iñazio egunian ere jai ederra antolatu zeuen Donostiako abertzaliek. Arratsaldeko lauretan hasitxa jaialdi ederra egon zan Atotxako zelaixan: dantzarixak, sokatira-jokua... baitxa harri-zulatzailliak ere!! Harri-zulatzaillien desapixua egon zan: Pedro Etxeberria "Lojaberri" debarra, Pedro Txurruka "Betetxe" mutrikuarraren kontra. Bixak zihardu en lanian Mutrikuko harrobi edo kanteretan, eta, jakiña, ezin abillaguak ziran barrenuarekin harrixa zulatzen. Orain urte batzuk Betetxeko Pedro Txurruka (1894-1955) haren semiak azaldu zigun aitxa "barrenlarixa" zoala. Markiñan ere jokatu ei zeuen desapixua 1924.urtia baiño lehentxuago, Betetxek, Lojaberrik eta markiñar batek. Astigarrabixakuak irabazi zoan eta ez edozein sari gaiñera: ontzako urria!

Betetxe saltakarixa


Aurreko baten saltakarixen berri eman gendunian desapixoren bat edo beste aitxatu gendun. Baiña ahaztuta laga gendun inguruko saltakaririk onenetako bat: Benito Txurruka "Betetxe" (1907-1980). Gorago aitxatu degun Pedro Txurruka barrenlarixaren anaixa zan Benito.

"*Desafío pedestre de Elgoibar*". Izenburu horrekin agertu zan albistia Euzkadi egunkarixan desapixuaren bezperan (1930-11-15). Eibarko baillarakuak desiatzen zozen saltakarixak ikusteko. Parte-hartzailliak: Luciano Arregi "Marigorta" eibartarra eta Benito Txurruka "Betetxe" mutrikuarra. Elgoibartik (Ospitxale aurretik) Azkarate gaiñeraiño juan bihar ziran, sei bat kilometro. Betetxek irabazi zoan; 26 minutu eta 10 segundo bihar izan zitxuan.

Beste batzuetan zezen-plazan izaten ziran saltakarixen desapixuak. 1931ko martixaren 15ian (domeka) Azpeitiako zezen-plazan alkartu ziran Ordiziako Segundo Olazkarreta eta Benito Txurruka "Betetxe". Ordiziarrak 100 buelta eman bihar ziozen plazari (11.300 metro) eta Betetxek buelta erdi gitxiago (99 buelta eta erdi). Ordiziakuak ikusi zoanian mutrikuarrak bentajia ateratzen ziola, karreria galdutzat jota, erretiratu egin zan 51.bueltan. Betetxek 41 minutu eta 25 segundo bihar izan zitxuan amaitzeko.

Lasterketa horretako baten berri eman ondoren, honela amaitzen deu egunkariko kronikatxua Elgoibarko Atxolinek: (Euzkadi, 1930-11-18): "*Obe dezute lengo esaera zarrak aitu, ba onek esaten dituenak egia gertutzen dia-ta, jokua ezta errenta ollua obe da erreta*". Desapixo eta posturak dirala eta ez dirala hizketan egon eta gero, berdin amaitxu deu alkarrizketia mutrikuar umoretsu batek: "Jokua ez dek errenta, jaik oillua erreta".

Josu Larrañaga Arrieta



2020 santa eskea

IEEUUUUPPPPP!!!!

Estribiloa:

Bertso eskola aurrera doa
Txikienekin batera
Oinarri hartuz berdintasuna
Kultura eta euskera

Xabi:
Bertso_eskolako taldea dator
Beti bezala indarrez
Ezer baino lehen agur bero bat
Talde guztiaren partez

Imanol:
Gazte ta heldu bertso eskolan
Gaurkoan elkartu gera
Santa Eskea badator eta
Pixkat berotze aldera

Iñigo:
Gure_arbasoek eman ziguten
Ohitura eta kantua
Ta aurtengoan ekarri dugu
Talde biziberritua

Xabi:
Ohitura zarra mantentzea da
Santa_eskaleon helburu
Otsailan 1-a egutegian
Gorriz markatuta dugu

Imanol:
Eguraldia portatuko den
Zalantza degu buruan
Gu gogoz gaude ta berdin berdin
Irtengo degu kantuan

Iñigo:
Halaxe da bai berdin berdin da
0 edo 20 gradu
Egualdia hotza badago
bertsoak berotuko du

Xabi:
Kalian talde bat izango da
Baserritan hiru talde
Geure onena emango degu
Koplari berrien alde

Imanol:
Hainbeste maite degun ohiturak
Segida eduki dezan
Txikien bertso eskolak eman
Behar du nahiko zeresan

Iñigo:
Bertso eskolak urterik urte
berean gogor dihardu
Baina aurrera egin nahi badu
Haize berria behar du

Xabi:
Nahiz ta kantuan asterik-aste
Doaz gero ta hobeto
Santa eskean hezi behar da
Bertsolari izateko

Imanol:
Ta horregatik irtengo dira
Aurten gurekin kantari
Lenengo_urtean taldean eta
hurrengoetan koplari

Iñigo:
Euren kantuak entzungo dira
Ta plazer handiz gainera
Talde ederra baietz osatu
Helduenekin batera

Xabi:
Beraz taldea kopla dezagun
Aitorrengandik hasita
Ostiralero egiten digu
Santa-Elenatik bisita

Imanol:
Aitorri buruz zer ta nola_esan
Kontuz ibil zaitez aizu!
Marratik pixkat pasa ezkero
Erantzun egingo dizu

Iñigo:
Halaxe da bai Aitor txikia
Erantzuten da bizkorra
Horixe dugu bertso eskolan
Goiko-Arbako altxorra



Helduen taldian:
Imanol, Malen, Iñigo ta Xabi
Gaztetxuen taldian:
Bihotz Basterretxea Pagoaga (zutik), ta makurtuta
Aiur Txurruka Mugerza,
Aitor Elezgarai Barruetabeña eta
Olatz Basterretxea Pagoaga.

Imanol:
Gaur ostirala eta pagia
Ziur izango dezute
Beraz limosna bota zazue
Kopla saioaren truke

Xabi:
Ta hurrengoa Aiur Txurruka
Mugerza abizenekin
Iturritzako arrastokua
Argi ibili honekin

Imanol:
Arno mendian ikusi nuen
Urte zaharrian barrena
Azken irten da bera izan zen
Puntara heltzen lehena

Iñigo:
Adar jotzeko gure Aiur hau
Betire dispuesto dago
Bertsoa asko maite du baina
Igual fornite-a nahiago

Xabi:
Gazteagoa hor dugu Bihotz
Hamaika urte beteta
Bertso eskolan uzten dizkigu
Perla txikiak tarteka

Imanol:
Gaur bete ditu urteak eta
Ze nolako merienda!
Goxoki gabe utziko zuan
Virginitaneko denda

Iñigo:
Urte betetze eguna eta
Aze merienda ederra
Izena ez da gure Bihotzek
Zabala daukan bakarra

Xabi:
Laukote hontan tokatzen zaigu
Koplatzea gazteena
Izenetikan dauka Olatzek
Berezko koplari sena

Imanol:
Bi ahizpetatik Bihotz izan zan
Bertso eskolan aurrena
Gero Olatzek inbidia ta
Bera _etorri zan hurrena

Iñigo:
Olatzentzako nire azken kopla
Gure taldeko gazteena
Frasko txikian gordetzen dugu
Perfume garestiena

Xabi:
Santa Eskian eskatzea da
Ohitura edo erronka
Limosna eman dezakezue
Edo koplatxo bat bota

Iñigo:
Baina etzazue serio hartu
Limosna ematearena
Zuek gurekin izatea da
Limosnarik hoberena

Aitor:
Santa Elenatik irten naiz eta
Aitor dutela izena
Santa Eskea izango da aurten
Nire egunik onena

Aiur:
Ni nator ona asko abestera
Eta ere bai jatera
Santa Eskean aterako naiz
Deste danokin batera

Xabi:
Bejondeizuela esan behar det
Ta portatu zaretela
Bertso eskolan asterik aste
Segi zazute horrela

Imanol:
Gaurko saioa hartuko degu
Hurrengorako eredu
Otsailan 1a gertu dago ta
Orduan segiko degu

EMAN ODOLA, NIGAN BIZI

Osakidetza, Euskadiko Odol Emaileak eta Eusko Jaurlaritzako Osasun Saila odola emateko kanpainan ari dira. Mutrikuko Odol-emaileen arduradunetako bat den Regina Bilbao Lekuberekin solasean jakin dugu zein indarrekin ari den odol-emaileen taldea Mutrikun: ez da iristen desiragarri den kopuru minimora.

Zenbaterainoko odol beharra dago gaur egun?

Unean uneko kontuak izaten dira eta odol-motaren araberakoak. Orokorrean esan genezake odol gutxiago behar izaten dela ebakuntzetan, teknika modernoagoak erabiltzean, traumatismo maila jaisten delako. Istripuak ere gutxitu egin dira, baina, bestalde, bizitza itxaropena luzatu. Eta zenbait gaixotasun larri transplanteak tarteko sendabidean jartzen dira, eta batzuetan, arrazoi ezberdinak direla-eta, denbora luzez egon behar izaten dute zain ebakuntza gauzatu arte. Bitartean odol kopurua handiaren beharrean aurkitzen dira, adibidez, hezurretako muinean minbizia dutenak.

Mutriku herri indartsua izan da odol-emaile kopurutan. Nola dago gaur egun?

Mutrikun ematen den odol kopuruaren datuak ditugu. Jakitun gara badirela mutrikuar odol-emaile gazteak, kanpoan estudiatzen edo lanean ari direnak, herritik kanpo ematen dutenak; beraz, emango ditugun datuak ez dira izango zuzen-zuzenak adin maila horretan.

134 odol-emaile ditugu zerrendatuta (68 gizonezko eta 66 emakumezko). Adin tartean honela banatuta: 18-27 urte bitartekoak (7 gizonezko eta 13 emakumezko), 28-37 urte bitartekoak (7 gizonezko eta 3 emakumezko), 38-47 urte bitartekoak (16 gizonezko eta 20 emakumezko), 48-57 urte bitartekoak (24 gizonezko eta 17 emakumezko), 58-67 bitartekoak (13 gizonezko eta 12 emakumezko), 68-72 urte bitartekoak (gizonezko 1 eta emakumezko 1).

Garbi ikusten da jaisten ari dela emaileen kopurua adinen arabera. Biztanleen kopurua kontutan izanik ez gara iristen minimo desiragarrira: 161,3 izango lirateke minimo desiragarri bezala hartzen den Mutrikuren 5375 biztanleen kopurua kontutan izanik.

2018. urtean 39,5 donazioko media egon zen, ateratzera etorri ziren egun bakoitzeko. Kopuru hau 50etik gorakoa izan da urte askotan.

Zer odol kopuru ematen da, eta zein epe izaten da emanaldi baten eta bestearen artean?

400zk. izaten dira emanaldi bakoitzean. Eman ondoren likidoa edan eta apur bat janda, laster etortzen da gorputza bere onera. Ez da komeni baraurik joatea odola ematera (sasoi batean hala eskatzen bazen ere), ez eta ere gehiegi janda edo alkoholdun edariak hartuta. Odola atera ondoren, atsedenalditxo bat egitea komeni da, zainean egindako ebakia ondo itxi dadin. Bi hilabeteko epe izaten da minimotzat hartzen dena hurrengo emanaldia baino lehen. Guk hiru hilean behin egiten diegu deiak gizonezkoei, eta lau hilabetean behin emakumezkoei. Kirol gogorrak egiten dituztenek ere kontu izan behar dute odola ematerakoan.

Kopuru bat gainditzen duten odol-emaileei ematen zaie halako esker on bat, ez da?

Bai. Urtero egoten da ekitaldi bat, normalean Eibarren, non bereizgarriak ematen zaizkien 25 donazio egin dutenei. 40 donazio egin duten emakumezkoei eta 50 egin duten gizonezkoei, beste bereizgarri bat, eta 60 eta 75 egin dituztenei beste bat. Eta berezi bat 100 donazio egin dituztenei. Anaiarteko bazkari baten inguruan izaten da.

Zein lekutara joan behar da odola emateko? Eta noiz?

Orain anbulatorioan izaten da. Badirudi hara pasatzeak, donazio kopuruan eragina izan duela. Beheko Plazan zenean zenbait jendek ikusi eta hurbiltzen zen, orain, agian, gertatzen ez dena.

Datorren hilean, otsailak 13, 18:00tik 20:00ra arte etorriko dira odola ateratzera.

EA GAZTEAK ANIMATZEN DIREN HAIN BEHARREZKO DEN ODOLA EMATERA!!!

Gipuzkoako Odol Emaileak



m u t r i k u n

..... 134 odol-emaile .....

..... (68 gizonezko eta 66 emakumezko) .....

18-27 urte bitartekoak (7 gizonezko eta 13 emakumezko)

28-37 urte bitartekoak (7 gizonezko eta 3 emakumezko)

38-47 urte bitartekoak (16 gizonezko eta 20 emakumezko)

48-57 urte bitartekoak (24 gizonezko eta 17 emakumezko)

58-67 urte bitartekoak (13 gizonezko eta 12 emakumezko)

68-72 urte bitartekoak (gizonezko 1 eta emakumezko 1)



ELENE
Zorionak gure etxeko artistiai! 6 muxu erraldoi familixa guztixan partez!



NORA
Urtarrilaren 30ean 6 urte beteko duzunez, Zorionak eta muxu bat Lea, Malen eta Aittonak.



KANDIDO
Bederatziurrenak pasatuta egon arren ZORIONAK zure 94 urtebetetzean, Inesek eta Nekanek mila muxu.



JESUS MARI
Urtarrilak 17, San Anton egunez 78. Pozik bizi hurrengo urtea ere.



NAROA
Mila mila zorion eta muxu potoloak etxeko danon partez.



INTZA
Intza Irizar Alberdiri Zorionak fameli guztion partez, bereziki Maddik



ZORIONAK!!

ZORIONTZEKO BIDEAK

kalaputxi2001@gmail.com

whatsapp 635748393

KALAPUTXI

LEA-ARTIBAI
Hileta zerbitzuak - Beilatokia
MUTRIKU Tel.: 943 60 41 20
ONDARROA: Arta Bide, 24 - Tel.: 946 830 960
Mug: 659 879 268

RAIKETAK S.L.
SAGARMIÑA
Hondartza 3-4, behea
31 postakutxa
20820 DEBA
Tel. eta faxa: 943 192 249
Mob. 629 639 685
629 641 940
sagarmina@sagarmina.com
www.sagarmina.com

Argazki Zaharrak



Santa Eskean, 1958 urte inguruan

Tente: Angel Azpillaga Urrutia, Pedro Salegi "Langa-haundi", Pedro Mendizabal "Beano", Agustin Iparragirre "San Juan", Jose Mari Iparragirre "Artia" eta Daniel Salegi "Langa-haundi".

Eserita: Xabin Mendizabal "Beano", Modesto Maiz Uriguen "Okelar" eta Joxe Kruzelegi Arozena "Kataolatza" soinujolea.

Argazki zaharrak erakutsi nahi?

>> kalaputxi2001@gmail.com

>> wathsapp: 635748393

>> Ansorregi zapata denda





ZAINTZAKO BOTIKAK

(gaueko 10ak arte)

URTARRILA		OTSAILA	
20tik 23ra	Lasuen Elezgarai	1 eta 2	Amaia Zalduegi
24tik 26ra	Lon Apraiz	3tik 6ra	Lon Apraiz
27tik 30era	Hiart Burgoa	7tik 9ra	Lasuen Elezgarai
31	Amaia Zalduegi	10etik 13ra	Amaia Zalduegi
		14tik 16ra	Hiart Burgoa
Gauetan, egunero (22:00-00:00):		zapatu (15) goizean, Lasuen Elezgarai	
Elgoibar		17tik 20ra	Lasuen Elezgarai
Gauetan, egunero (22:00-09:00):		21etik 23ra	Lon Apraiz
Celia Barandela 943 20 69 84		24tik 27ra	Hiart Burgoa
Ziriako Agirre kalea 4, Eibar		28 eta 29	Amaia Zalduegi

AGENDA

otsailak 1, zapatua

Egun osoan zehar, SANTA ESKEA
Mutrikuko kaleetan eta auzoetan

otsailak 21 eta 22

INAUTERIAK

ODOLA EMATEA

otsailak 13

Anbulatorioan, 18:00etan

Gipuzkoako Odol Emaileak

MENDI IRTEERAK

otsailak 9

Durango - BELATXIKIETA (661 m.) - Zornotza

apirilak 5

Ibarra - ORISOL (1.132 m.)- Ibarra

maiatzak 10

Otzaurte - ARATZ (1.445 m.) - Otzaurte

ekainak 14

Gorostapolo - HAUZA (1.304 m.) - Izpegiko lepoa

uztailak 3, 4 eta 5

PIRINEOAK - Tendeñera mendilerroa

irailak 13

Jarla eta Carla

urriak 18

BIANDITZ (844 m.) - Artikutza inguruak

azaroak 15

Lagran - SAN TIRSO (1333 m.)

abenduak 13

Deba

Burumendi Mendi Elkartea

Zure Elkartearen ekitaldiren bat edota deialdiren bat ***Kalaputxi***n erakutsi nahi baduzu,

idatzi hauetako batera:

kalaputxi2001@gmail.com

whatsappa 635748393

otsaileko aldizkarian argitaratzeko **otsailaren 10erako** bidali zuen lanak

hitza
herriaren informazioa
herriaren hizkuntzan
herriaren zerbitzuan



Albia
EHORZKETA ZERBITZUAK
Tel.: 646 351 352 - 943 60 47 78
943 20 10 95 (24 ordu)

Igualatorioarekin eta
Osakidetzarekin
lan egiten dugu

Audioprotesista
egunero zentroan
Audiometriak doan

OPTIKA VITORIA

OPTIKA • AUDIFONOAK

ERRIBERA 16 • 48700 ONDARROA • 946134138 • mvitoria@cnoo.es



matrikulazioa

urtarrilaren 27tik otsailaren 7ra

2020-2021 IKASTURTEA

GOIZEKO IZARRA IKASTOLA

zatoz gurera!

EUSKAL IRAKASKUNTZA PUBLIKOA

Hirigibel 3 · 20830 Mutriku
T. 943 60 36 75
ikastola@goizekoizarra.eus

www.goizekoizarra.eus

Ikastera

Jolastera

Haztera

